

PSE-EE-REN KONGRESUA. Ez zen ustekaberik gertatu PSE-EEren Ezohiko Kongresuan, eta delegatu sozialistek Patxi Lopez aukeratu zuten idazkari nagusi, alde handiarekin, gainera. Gemma Zabaletak, berriz, uste baino babes txikiagoa jaso zuen.

Erraz nagusitu da Patxi Lopez

Delegatuen babes zabala lortu ondoren, Patxi Lopez da PSE-EEko idazkari nagusi berria. Totorikak ez du lortu egituraren hautagaiari gailentzea, eta Zabaletak oso babes txikia erdietsi du




ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusi aukeratu berritan, alderdikideen txaloei agur batekin erantzuten.

Emaitzak

544 delegatu / Partehartzea, %99,26



tzaile, ezta PPren jarraitzaile ere», adierazi zuen.

Bere diskurtsoa delegatuei azaltzeko txandan, elkarrizketaren alde eta abertzaleekin zubiak eraiki beharraz mintzatu zen. «Egungo politika goitik behera aldatu behar dugu, egungo egoeran onartezina baitira konfrontazioa eta komunikazio eza. Batzen gaituena bilatu behar dugu». Elkarrizketarako prest dagoela agertu ondoren, baldintzak jarri zizkion abertzale-tasunari, eta Batasuna bakarrezko eskatu zion.

Beste bi hautagaiak ez bezala, Patxi Lopezek hiru-lau bider eten behar izan zuen bere hitzaldia, delegatuen txaloak zirela medio. Diskurtso laburra, ozena eta indartsua izan zen sozialista bizkaitarrarena, bere burua garaile ikusten duen hautagaiarena. Beste muturrean, Redondoren ildoaren ordezkari Carlos Totorikarena, luzea, errepikakorra eta une askotan suttsua, betiere abertzale-tasuna hizpide zuela. Ermuko alkateak ETA amaitzeko abertzale-tasuna gaingitu behar dela adierazi zuen, edo, behintzat, abertzaleen aldarrikapenak «autonomismoraino» jaitsarazi. Astebete aurretik bere hautagaitza jendaurrean aurkezterakoan, Totorikak esan zuen Lopezen sektorearekin «teknikoki berdinduta» zeudela. Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako 86 herriaren etxe sozialistetan delegatuak aukeratzeko egindako bozketak aintzat hartuta egin zituen adierazpenok. Atzoko bozketan, delegatuen %37ren babes lortu

ANALISIA

■ Felix Iriarte

Ausardiaren gaintetik, zuhurtzia

GIDARIA AURRENA. Redondok, batzar aretoko atarian, zioen garrantzitsuena ez dela idazkari nagusia zein izango den, baizik eta alderdiak egingo duen politika, eta hori gaur erabakiko dela azpimarratu zuen. Ez zuen arrazoirik. Izan ere, ez dute lehen politika aukeratu, eta ondoren politika hori kudeatzeko egokiena izango zen idazkari nagusia, alderantziz baizik. Alderdi sozialistan pertsonak politikaren aurretik egon dira beti, eta orain ere hala izango da.

LOPEZEN ANBIGUOTASUNA. Egigurenen eta Lopezen aliantzak emaitzak izan ditu. Helburu bat zuten, Redondoren aroari amaiera ematea, eta lortu egin dute. Beste kontu bat izango da aurrerantzean egingo duten politika. Lopezek ez zuen argibiderik eman hasierako hitzaldian, eta, bozketen emaitza ikusita (%57 bere alde eta %37 Totorika babestuz), zuhur jokatu behar du, redondotarrei begirik kendu gabe.

Bere jardunaren bi oinarri aurreratu ditu: bakea lortzeko ekimena hartu behar duela PSE-EEK; bestetik, Jaurlaritzaren eta Gobernuaren arteko elkarlana «estatu kontua» dela jakinarazi du, marra «biolentoen eta ez-biolentoen artean» jarritz. Oinarri nahikoak dira esateko maiatzaren 13ko ondorengo jokalekura egokitu nahi duela, eta Jaurlaritzako alderdiekin jokoan sartzeko prest dagoela. Baliteke batzuentzat gutxiegi izatea, baina ez dute gauza bera pentsatuko Totorikaren aldekoek.

ZABALETAREN PORROTA. Botoen % 6 besterik ez du bildu borroka irtenbidean oinarritu zuen hautagaiak. Jarrera ausartiena eraman zuen, baina ematen du sozialistak ez daudela mugimendu sakonak egiteko. Litekeena da bozketak ez azaltzea Zabaletaren benetako pisua, baina batzorde eragiletik at eta alderdian gehiago eragiteko aukerarik gabe geratu da.

Humberto Unzueta | DONOSTIA

Patxi Lopez da EAeko sozialisten idazkari nagusia. Bizkaiko buruzagi sozialistek delegatuen babes zabala lortu zuen atzo PSE-EEren Ezohiko Kongresuan. Lopezen hautagaitzak 308 boz izan zituen, Carlos Totorikak 200, eta Gemma Zabaletak 29 delegatuen babes besterik ez zuen eskuratu.

Patxi Lopezek delegatuen %57ren babesarekin ekingo dio bere ibilbideari PSE-EEko buruzagitzan. Egun gobernuan dagoen abertzale-tasunaren alternatiba izan nahi duela aitortu ondoren, PPTik eta EAJtik bereizitako berezko nortasuna duen alderdia eraikitzea eta ETAREN mehatxuen aurka askatasuna eta berdintasuna lortzea izango dira idazkari nagusi berraren erronka nagusiak. «Ez gara izango ez EAJren modera-